

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

NEKAZARITZA SAILA

Prozedura Arabako Foru Aldundiak eta basoen jabe diren zenbait entitate publikok partzuergoan dituzten zenbait mendiren baso aprobetxamenduak besterentzeko

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 16ko 263/2020 Erabakiaren bidez, onetsi egin da Arabako Foru Aldundiak eta basoen jabe diren zenbait entitate publikok partzuergoan dituzten zenbait mendiren baso aprobetxamenduak besterentzeko prozeduraren deialdia. Horrekin batera, aipatutako besterentzeak arautuko dituzten administrazio klausula berezien agiriak onetsi dira. Hona hemen haien funtsezko edukia:

1. Besterentzearen xedea: prozedura ireki bidez (enkante bidez) zuhaitzi lote hauen baso aprobetxamendua egitea, martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko mendien araubidea arautzen duenak, 35. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituz:

– 1. LOTEA: "Arriskua eta mentura" modalitateko aprobetxamendua Arabako Foru Aldundiarekin partzuergoan (30. partzuergoaren zati bat) Arratzua-Ubarrundiako udalarena den "San Bernabe ermita" dermioan, "Aramanzarri" OPko 458 mendian, arraseko mozketa bidez, 3,30 hektareako zuhaitzian (*Pinus radiata*, *Pinus sylvestris* eta *Pinus nigra*). Bolumena: 1.007,44 m³, azal eta guzti (*Pinus radiata*), eta 52,32 m³, azal eta guzti (*Pinus nigra* eta *Pinus sylvestris*).

– 2. LOTEA: "Arriskua eta mentura" modalitateko aprobetxamendua Arabako Foru Aldundiarekin partzuergoan (96. partzuergoa) Hermuko herriarena den "Arbolaran eta Txaradua" OPko 323 mendian, arraseko mozketa bidez, guztira 2,27 hektareako azaleran. Mozteko neurketaren bolumena: 1.542,64 m³, azal eta guzti, eta 33,19 m³ estereo enborki, intsinis pinu multzoan (*Pinus radiata*).

– 3. LOTEA: "Arriskua eta mentura" modalitateko aprobetxamendua Arabako Foru Aldundiak eta Manzanosko Administrazio Batzarrak partzuergoan duten (270. partzuergoa) Populus x euroamericana generoko makaldian (I-214 kлона), Manzanosko Administrazio Batzarrarena den Erriberabeitiko udalerriko 1 poligonoko 1145 eta 1152 katastro lurzatieta, 447,15 m³ cc zuhaitz zurgai eta 2,52 m³ cc zuhaitz ez zurgai arrasetik mozteko 0,76 hektarea inguruko azaleran.

– 4. LOTEA: "Arriskua eta mentura" modalitateko aprobetxamendua Arabako Foru Aldundiak eta Armiñongo Udalak partzuergoan duten (257. partzuergoa) Populus x euroamericana generoko makaldian (I-214 kлона), Armiñongo udalerriko 1 poligonoko 247 katastro lurzatiaren zati batean, 57,83 m³ cc zuhaitz zurgai eta 2,40 m³ cc zuhaitz ez zurgai arrasetik mozteko 0,26 hektarea inguruko azaleran.

– 5. LOTEA: "Arriskua eta mentura" modalitateko aprobetxamendua Arabako Foru Aldundiak eta Armiñongo Administrazio Batzarrak partzuergoan duten (287. partzuergoa, zati bat) Populus x euroamericana generoko makaldian (I-214 kлона), Armiñongo udalerriko 1 poligonoko 1033 katastro lurzatian, 163,27 m³ cc zuhaitz zurgai eta 5,10 m³ cc zuhaitz ez zurgai arrasetik mozteko 0,28 hektarea inguruko azaleran.

– 6. LOTEA: "Arriskua eta mentura" modalitateko aprobetxamendua Arabako Foru Aldundiak eta Ribagudako Administrazio Batzarrak partzuergoan duten (284. partzuergoa) Populus x euroamericana generoko makaldian (I-214 kлона), Erriberabeitiko udalerriko 1 poligonoko 2030 katastro lurzatian, 217,29 m³ cc zuhaitz zurgai eta 4,64 m³ cc zuhaitz ez zurgai arrasetik mozteko 0,60 hektarea inguruko azaleran.

– 7. LOTEA: “Arriskua eta mentura” modalitateko aprobetxamendua Arabako Foru Aldundiak eta Zambranako Administrazio Batzarrak partzuergoan duten (289. partzuergoa, osoa, eta 214. partzuergoa, zati bat) Populus x euroamericana generoko makaldian (I-214 klona), Zambranako Administrazio Batzarrarena den Zambranako udalerriko 1 poligonoko 1047 (zati bat), 1048 (zati bat), 1252, 1301, 1261 eta 1263 katastro lurzatietan, 1.726,30 m³ cc zuhaitz zurgai eta 43,11 m³ cc zuhaitz ez zurgai arrasetik mozteko 5,41 hektarea inguruko azalera.

– 8. LOTEA: “Arriskua eta mentura” modalitateko aprobetxamendua Arabako Foru Aldundiak eta Leziñana Okako Administrazio Batzarrak partzuergoan dituzten (209., 244. eta 261. partzuergoak) Populus x euroamericana generoko makaldietan (I-214 klona), Erriberagoitiko udalerriko 3 poligonoko 791, 792 eta 810 katastro lurzatietan, 1.045,56 m³ cc zuhaitz zurgai eta 50,33 m³ cc zuhaitz ez zurgai arrasetik mozteko 3,97 hektarea inguruko azalera.

– 9. LOTEA: “Arriskua eta mentura” modalitateko aprobetxamendua Arabako Foru Aldundiak eta Hereñako Administrazio Batzarrak partzuergoan duten (223. partzuergoa) Populus x euroamericana generoko makaldian (I-214 klona), Hereñako Administrazio Batzarrarena den Erriberagoitiko udalerriko 5 poligonoko 1041, 1052, 1071 eta 1072 katastro lurzatietan, 334,47 m³ cc zuhaitz zurgai eta 33,88 m³ cc zuhaitz ez zurgai arrasetik mozteko 2,38 hektarea inguruko azalera.

– 10. LOTEA: “Arriskua eta mentura” modalitateko aprobetxamendua Arabako Foru Aldundiak eta Santa Cruz del Fierroko Administrazio Batzarrak partzuergoan duten (215. partzuergoa) Populus x euroamericana generoko makaldian (I-214 klona), Zambranako udalerriko 1 poligonoko 1280 katastro lurzatian, 775,10 m³ cc zuhaitz zurgai eta 10,30 m³ cc zuhaitz ez zurgai arrasetik mozteko 1,83 hektarea inguruko azalera.

2. Lizitazio oinarria.

Lizitazioaren gutxienerako prezioa baino gehiago eskaini ahal izango da, eta azken prezioa “arrisku eta mentura” printzipioaren arabera zehaztuko da, aprobetxamenduaren objektu diren materialei dagokienez. Gutxienerako prezio hau ezarri da lote bakoitzerako:

- 1. LOTEA: 31.374,24 euro (BEZa edo konpentsazioa ez dago sartuta).
- 2. LOTEA: 43.260,30 euro (BEZa edo konpentsazioa ez dago sartuta).
- 3. LOTEA: 13.449,78 euro (BEZa edo konpentsazioa ez dago sartuta).
- 4. LOTEA: 1.534,78 euro (BEZa edo konpentsazioa ez dago sartuta).
- 5. LOTEA: 4.642,96 euro (BEZa edo konpentsazioa ez dago sartuta).
- 6. LOTEA: 5.931,79 euro (BEZa edo konpentsazioa ez dago sartuta).
- 7. LOTEA: 50.666,24 euro (BEZa edo konpentsazioa ez dago sartuta).
- 8. LOTEA: 27.838,85 euro (BEZa edo konpentsazioa ez dago sartuta).
- 9. LOTEA: 9.136,66 euro (BEZa edo konpentsazioa ez dago sartuta).
- 10. LOTEA: 22.622,10 euro (BEZa edo konpentsazioa ez dago sartuta).

3. Bermea.

Eskainitako azken prezioaren ehuneko 5aren pareko behin betiko bermea ezarriko zaie, BEZa edo konpentsazioa kanpo utzita, 1. eta 2. LOTEELI; eta ehuneko 10aren parekoa, berriz, 3., 4., 5., 6., 7., 8., 9. eta 10. LOTEELI, naturagune babestuen barruan daudelako.

4. Baldintzen agiria.

Interesdunek hauexetan dute eskuragai:

– Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua (Probintzia plaza, 4, 1. solairua, ezkerra, Vitoria-Gasteiz), jendearentzako ordutegian.

– Arabako Foru Aldundiaren web orrian (www.araba.eus).

5. Agiriak eta argibideak eskuratzea.

Kontratuaren administrazio alderdiei buruzko argibide eskaerak:

Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua.

Probintzia plaza, 4, 1. solairua, 01001 (Vitoria-Gasteiz).

Telefono zenbakia: 945 181818, luzapena: 52849.

posta elektronikoa: jamurrio@araba.eus.

Kontratuaren alderdi teknikoei buruzko argibide eskaerak:

Mendi Zerbitzua.

Probintzia plaza, 4, 1. solairua, 01001 (Gasteiz).

Telefono zenbakia: 945 181818, luzapena: 52191.

posta elektronikoa: lserna@araba.eus.

6. Eskaintzak aurkezteko tokia eta epea.

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, 01001 Vitoria-Gasteiz).

Eskaintzak postaz bidali ahal izango dira, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik has-
ten den 15 egun naturaleko epeko azken egunaren 14:30ak arte (azken egunak jendearentzako
ordutegi berezia baldin badu, 12:30ak arte aurkeztu ahal izango dira Erregistro Orokorrean).
Azken eguna baliogabea bada, epealdia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

7. Bestelako informazioa: ikus aprobetxamenduak arautzen dituzten baldintza tekniko-
en agiria.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 22a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO